

## EUSKOTREK METROKO ETA TRANBIAKO ZERBITZU BEREZIAK ESKAINIKO DITU BIHAR ATHLETIC CLUB – F.C.BARCELONA NORGEHIAGOKA DELA ETA

Bihar, otsailak 6, Euskotrenek Metroko eta tranbiako zerbitzu bereziak eskainiko ditu Athletic Club – F.C.Barcelona partidua dela eta. Tranbian mozketa burutuko da ere, 22:50etik 23:10era burutuko da. Mozketa hori Bilboko Udalak koordinatutako udal Emergentsia Planaren barruan dago.

### METROA

Partiduaren ostean, zerbitzu berezia eskainiko da 3.Linean:

- Matiko – Kukullaga: 23:17, 23:36, 23:51
- Kukullaga – Matiko: 23:34, 23:49, 0:04

**Luzapena egotekotan** zerbitzu bereziak eskainiko dira 3.Linean behin partidua bukatuta.

### TRANBIA

Atxuritik La Casillarako 10 minutuko zirkulazioez gain, Euskotrenek Pio Barojatik Ospitalera irtengo diren zenbait zerbitzu berezi ere eskainiko ditu ondorengo orduetan: 20:01ean, 20:31n eta 20:41ean.

Partiduaren irteera modu egokian egiteko, 22:50etik 23:10era bitartean, gutxi gorabehera, zerbitzuaren mozketa partziala burutuko da La Casilla eta Euskalduna artean. Behin mozketa bukatuta Atxurirako eta La Casillarako tranbiaren zirkulazio bereziak martxan jarriko dira.

**Luzapena egotekotan** mozketa partziala partidua bukatzerakoan burutuko da. Zerbitzua berrezartzen denean, zerbitzu bereziak eskainiko dira bi noranzkoetan.

Partiduaren ondoren San Mamesetik hurbil dauden geralekuetan pilaketak ekiditeko, Euskotrenek Euskaldunako geralekura joatea aholkatzen du. Geraleku horretatik tranbiaren zerbitzu bereziak irteten dira. Bilboko tranbiarako sarrera errazagoa eta azkarragoa izan dadin, Euskotrenek ordaintzerakoan Barik erabiltzailea gomendatzen du.

Informazio gehiago lortzeko asmoz, erabiltzaileek 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete, tranbiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) web gunea kontsulta dezakete, edota twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean eta Euskotrenen APP ofizialean

Igorpen data: 2020ko otsailaren 5ean

*Euskadi, auzolana, bien común*

